

## Euskal Kulturgintzaren Transmisioa

### Albisteak

# Ekainaren 1ean amaitu zen EKTren 3.edizioa

2011/06/22

Poemak irakurritz eta aldiari behingo oharrez osatu zuen saioa Joxanton Artzek: goxo, sakon, bizi-bixi...

Ikasturtean zehar ikaskide izandako askok osatu dute azken festaren programa. Bakoitzak beretik, hurrenez hurren: **Erika Lagomak** eta **Beñat Gaztelumendik** bertso jarriak kantatu zituzten **Kepa Matxain** lagun zutela gitarra jotzen. **Eneko Barberenak** liderrez aritu zitzaigun, ohi duen jite komikoa lagun. **Karlos Aizpuruaren** imintzioak, zirikadak eta ateraldiak etorri ziren gero. **Maitane biak**, **Legarreta** eta **Beristain**, elkarrizketa trafikatzaillea eskaini ziguten geroxeago. Hurrengo, 2. edizioan ikasle izan zen **Mailu Arrutiren** antzerkia etorri zen, ezuste ederrean. Eta, jarraian, dagoeneko bikote artistiko izateko bidean diren **Ane Ortizek** eta **Enrike Letonak** flautaldian eskaini ziguten "Txoria txori". Zain zegoen jada, txanda noiz helduko, **Jon Agirresarobe**, ikastaldiaren jokaldirik onenen txantxa egiteko. Ikasleez gain, batzorde pedagogiko kideek EKTren ereserkia abestu zuten saioari amaiera emateko, "Hatsa" izeneko kanta. Hori guztia **Amaia Zinkunegik** eta **Arantzazu Altubek** aurkeztu zuten. Profesionalak biak, **Iñaki Urruzolaren** gidaritzapean.

HUHEZIKO egitekoekin gustura amaitu eta umore onean Larriño auzora joan ginen **Edorta Agirrek** prestatutako afari ederra dastatzera. Bapo afaldu eta kantuz eta kontuz bete zen gaua, **Ondarruk** aguantatu zuen arte.

**Mari Karmen Garridori** egokitu zitzaion argazkilari-lanetan aritzea. Hona, bilduma.



### Bideoak

- Azken festako bideoak
- Beste bideo honetan, berriz, ikasturte honetan izandako hizlariak ikus daitezke